

Ekainaren 17an  
**URTEAN ZEHARREKO 11. IGANDEA**

### Agurra

Bere Hitzez berritzen gaituen Jauna izan bedi zuekin

### Sarrerako oharpena

Igandea ospatzera bildu gara Jaunaren izenean bilduta. Jesusen Pazkoan du oinarri igandero biltze honek: gure betiko pazkora begira jartzen gaitu munduko bizimodua norabide horretara zuzenduz. Presta dezagun gure barrua hain ospakizun ederrera.

### Damu-otoitza

Senideok: aitor ditzagun gure bekatuak, eta uste osoz hurbil gaitezen gure Artzain onarengana, Haren barkamena lortzeko.

- Jesus Jauna, zure ardiak ezagutzen dituzun Artzain ona: erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, ardi galduaren bila etsi gabe zabiltzana: Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, betiko biziaren larre gurietara eramaten gaituzuna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahalsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara

### Otoitza

**Jainko Jauna, Zugan itxaroten dutenen indarra,  
entzun bihotz onez gure otoitza;  
eta Zu gabe gizakiaren ahuleriak ezer ez baitezake,  
emaguzu beti zure graziaren laguntza;  
zure aginduak betez,  
Zuretzat atsegingarri izan gaitezen gogoz eta egitez.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean  
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

### Hitzaren liturgiari oharpena

Geu gara gure bizitzaren protagonista eta ekimenen arduradun, baina Jainkoaren esku gaude eta bera gure bizitzan presente dago. Berak eragiten gaitu: dena ez dago gure esku bakarrik. Bera da zaintzen gaituena eta fruitu emanarazten diguna.

### Lehenengo irakurgaia (Ez 17, 22-24)

Ezekiel profetaren liburutik

Honela mintzo da Jauna: «Zedro handiaren gain-gainetik adar bat hartuko dut eta landatuko; haren adar muturretik kimu bat kenduko dut, eta mendi garai baten gainean landatuko. Israel mendi handiaren gainean landatuko dut; adarrak zabalduko ditu eta fruituak emango; eta zedro tantai egingo da. Era guztietako hegaztiak biziko dira haren azpian; haren babesean egingo dute habia. Eta lurreko zuhaitz guztiek ezagutuko dute, Ni naizela Jauna: zuhaitz handia zapaltzen duena, eta zapaldua zutiarazten, zuhaitz hezea ihartzen, eta iharra hezetzen duena. Nik, Jaun honek, hala esan dut, eta hala egingo».

### Erantzun-salmoa (Sal 91, 2-3. 13-14. 15-16)

Es - ke - rrak Jau - na - ri, A - ren mai - ta - su - na be -  
ti - ko - a bait da.



**Aleluia** (Ik. Mk 1, 15b. d)

Hazia, Jainkoaren hitza da; ereilea, berriz, Kristo;  
Honi aditzen dionak, izango du betiko bizia. R/.

**Ebanjelioa** (Mk 4, 26-34)**Homiliarako argibideak**

*Bere kasa hazten den hazia*

Haziak berez duen indarra azpimarratzen du Jesusek, Jainkoak emana den indarra denez, lurak duen fruitu emateko indarraren antzera. Nagusitasuna ez da nekazariarena, haziarena baizik, beraz Jainkoarena.

Hori gertatzen da landan bezala gure eliz jardunean ere. Giza jardun orotan bezala, barne-indarrak, maitasunak, gogoak, interesak indarra duenean, hazi egiten da gure lanaren eraginkortasuna. Baina, barneko indar hori Jainkoaren maitasuna, Haren Espiritua, denean, Kristo Piztuaren grazia, alegia, orduan Erreinuak fruitu ematen du eta bikain hazten da.

Jainkoak gure historia nola gidatzen duen agertzen digu parabolak. Jainkoaren garrantziaz eta Bere hitzaren, sakramentuen eta graziaren eraginkortasunaz hazten bagara, bi gauza gerta daitezke: dena ondo ateratzen bada guri esker dela pentsatzen dugu eta gaizki ateratzen bada hondoratu egiten gara.

Ez genuke inoiz harrotu behar, mundua guri esker salbatuko balitz bezala. On da Paulok esanaz oroitzea: «Landatu, nik egin nuen; ureztatu, Apolok; baina hazi, Jainkoak hazarazi zuen» (1Ko 3,6). Hazia ez da ernetzen jakituriaren ondorioz. Jainkoaren Hitza ere ez da gure ahaleginaren ondorio, baizik eta Jainkoarengandik dator, guk hausnartzen eta onartzen ahalegina egin behar badugu ere. Jainkoa da egiazko nekazaria. Horrek apalak izaten eta eskuzabalez lanean jarraitzen laguntzen digu.

Ez dugu goibeldu behar, nahi ditugun fruituak ez ikusteaz. Jesusi ere ez zion jende guztiak erantzuten, ezta apostoluek ere Berak nahi bezala. Apostoluei ere kosta zitzaien gero Berri Ona denei helaraztea.

Jainkoak du lehentasuna. Oso zailak iruditu arren bizi ditugun garaiak, haziak emango du fruitu. Guk pazientziaz erein behar dugu. Berak hazaraziko duela sinetsirik.

*Zuhaitz apalak handi egin daitezke*

Ezekielek lehenengo irakurgaietan eta Jesusek ebanjelioan darabilten irudia, desproporzioaren irudia da. Hazirik txikienetik emaitzarik handiena atera daiteke Jainkoaren bideetan. Jainkoak halaxe egiten du, bere egitasmoa aurrera eramateko jendea aukeratzean ere: pertsona apalenak hartzen ditu gauzarik handienak egiteko. Jesusek ere arrantzale talde apal bat baliatzen du Eliza martxan jartzeko.

Konfiantzaz eta apalatasunez entzuten dugu Berri On hau: Elizaren oinarria ez da boterea eta jakinduria, Jainkoaren salbamen indarra baizik. Eliza ebanjelizatzaile eta maistra izateaz gain, entzule izatera deitua dago, Jainkoak han eta hemen ereinduen hazia aurkitzeko.

Erreina martxan dago, “gertatzen” ari da. Jainkoak fruitu emanaraziko dio, eta heldutasuna iristen lagunduko. Baina gure

lankidetza behar du, zaindu dezagun, ahalegin gaitezen, Erreinua zabal dadin eta guztiengana iritsi.

### *Adorea sekula galdu gabe*

Behar bada, Markosek ebanjelioa idatzi zuenean ere baziren kristau goibelduak, tristetuak: pertsekuzioak, martiritza, fruiturik ez ikustea... gogorra delako. Jesusen parabola hauek jasotzen ditu Markosek, ekintza ebanjelizatzailea eta misiolaria adoretzeko. Guri ere gogoia indar diezagukete gaur, parabola eder hauek.

Israeldarrek ere etorkizuna ilun ikusi zuten eta Ezekielek esan zien adaxka batetik aterako zuela berriro ere Jainkoak zuhaitz bikaina, lehengoa bezain ederra. Zein gara gu etorkizunaz ez fidatzeko, Jainkoaren esku baldin badago geure esku baino gehiago?

Kristorengan dugun fedea eta Berak ematen digun itzaropena ditugu euskarri. Ez dugu ikusten, baina fedea garamatza. Ez dugu Jauna ikusten, ez dugu askotan fruiturik biltzen, baina badakigu gure egitekoa ereitea dela, ebanjelioa zabaltzea, nahiz eta askotan pentsatu munduak ez duela hazia onartzen, beste gauzetan dabilela. San Paulok ere izan zuen dena uzteko tentaldia: nekea eta ezina nozitu zituen sarritan. Baina jasotako enkargua esaneko izanez betetzea garrantzitsuagoa izan zen berarentzat.

Guk ere gogoari eutsi behar diogu. Jainkoaren Hitzak beti du indarra, era batera edo bestera. Utz dieziaogun berari lan egiten. Baina konfiantza ez da alferkeria, ez ahaztu! Berez indartsua den haziari lagundu behar diogu: zaindu, ureztatu, belar txarrak kendu... eta Jainkoari eskerrak eman ari delako, ixilik, baina ari eta ari haziak ernarazten.

### **Jainkoaren herriaren otoitza**

Senideok: egiogun otoitz guztia ezagutzen duen Jainkoari, Berak badaki-eta gizakion beharrak zein diren:

- Egin dezagun otoitz Elizaren alde: Jainkoak, gure Jaunak, sendo dezan, zatiketa guztiak urrun ditzan eta munduko kristau guztien otoitzak entzun ditzan. Eska diezaiogun Jaunari.
- Egin dezagun otoitz gure herriko eta mundu guztiko agintarien alde: Jainkoak jakinduria eta indarra eman diezaien, bere ardurapean duten herria bakez eta justiziaz goberna dezaten. Eska diezaiogun Jaunari.
- Egin dezagun otoitz etxetik urrun daudenen alde: Jaunak etxera pozik itzuli eta familiarekin elkartzeko dohaina eta zoriona eman diezaien. Eska diezaiogun Jaunari.
- Egin dezagun otoitz hemen bilduak gaudenon alde eta ospakizunean buru egiten duenaren alde ere. Jaunak gure otoitza entzun dezan, eta gure eskariak Bere gogoko izan daitezen beti. Eska diezaiogun Jaunari.

Jainko Jauna, eskubetez ereiten duzu gure bihotzetan egiaren eta graziaren hazia; entzun gure otoitzak eta emaguzu gugan erein duzuna itxaropen apalez onartu eta ebanjelioko pazientziaz zaintzea, gure bizitzan Zure hitza errotzen denean munduan maitasuna eta justizia areagotzen direla jakinik. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

### **Jaunartze-ondorengo otoitza**

**Jaunartze honek, Jauna,  
fededunak Zurekin bat direla adierazten du;  
ekar dezala zure Elizan guztiok elkarrekin bat egitea.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**